

Asisko gutuna

2022ko otsaila

4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

160. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Senidetasuna, familia, komunitatea bere kideek egiten dugu. Baina denbora behar du mamitzen eta erreal bihurtzen joateko.

Gogoetarako gaia

Perspektiba, historia

Denok bizi izan ditugu betetasun-uneak pizten dituzten topaketak, sentimenduz beteriko une ahaztezinak; gure “arima bikiekin” topo egiten dugunean edo beren ideia, proiektu eta abar-rengatik erakartzen gaituzten pertsonekin topo egiten dugunean. Une ilusionagarriak eta pozez beterikoak dira, eta komunitatearen nahia, bizikidetzaren erabatekoa piztu digute gudan. . Baina esperientzia bat ere badugu: harreman-historia bat egiten ez bada, dena oroitzapen atsegin hutsean geratzen da, eta ez besterik. Harreman sakonena, benetan barrutik egiten gaituztenak, denboran iraun dutenak dira.

Gauzen eta emaitzen berehalakotasunak ixten duen mundu batean parte hartzen dugu, non epe luzeko errealitateak ez baitira baloratzen eta dena instant batean lortu nahi baita. Gure harremanak ere bat-batekotasunaren zurrunbiloan erortzen dira. Hala ere, giza harremanen

garaiak errespetatzen ez diren elkarte batek, harremanetako estadio latz eta gogorrenak bizitzeko gai ez izateko joera du –bai baitira honelako garaiak–. Dena erraza eta atsegingarria izatea nahi da hemen eta orain, baina anaiarteko harremanek beste erritmo batzuk dituzte, urrunagoko eta sakonagoko horizonteak.

Harreman-historia bizi bat dagoenean baino ez, une atseginak eta gogorrak izan diren garai luzeak egin direnean, une horiek landu direnean, pertsonak elkarbizitzan egiten joan direnean, elkarte sakonera sakonera iristen da. Bizikidetzako esparru horietan bakarrik hautematen dira elkartearen benetako ñabardurak, nartasunez eta jakinduriaz beteak. Dagoeneko ez da hainbeste interesatzen emozioa, baizik eta komunitatearen egia. Horretarako, ikuspegi zabal behar da denboran eta erlazioan. Horrela, senideak dastatzera iristen da.

Ebanjelio pasartea: Jn 13,33-38

«Nire bila ibiliko zarete, baina juduei esan niena bera diotsuet zuei ere: “ni noan tokira zuek ezin zarete joan”. Agindu berri bat ematen dizuet: elkar maita dezazuela. Nik maitatu zaituztedan bezala, maitatu zuek ere elkar. Honetan ezagutuko dute guztiek zuek nire ikasle zaretela: zuek elkar maite izatean». Simon Pedrok galdetu zion Jesusi: “–Jauna, nora zoaz?” Jesusek erantzun zion: “–Ni noan tokira zuk ezin orain niri jarraitu; geroago bai, jarraituko didazu”. Pedrok, berriro: “–Jauna, zergatik ezin dizut jarraitu orain? Neure burua emango dut zuregatik”. Jesusek erantzun zion: “–Niregatik zeure burua emango duzula? Bene-benetan esaten dizut: Oilarrak jo baino lehen, hiru bider ukatuko nauzu”».

Frantziskotar espiritualtasuna

Beste behin, Portziunkulako Santa Marian ospatzekoa zen anaien kapitulu-garaia hurbildu zenean, Frantzisko esan zion bere lagunari: «Ez dut uste anaia txikia nintzatekeenik, esango dizudan egoera ez banu. Anaiek debozio eta benerazio handiz nigana etorri eta gonbidatzen naute eta, haien debozioak eraginda, kapitulura joaten naiz haiekin. Haiek bildu eta Jaunaren hitza iragartzeko eskatzen didate, eta nik zutitunik, Espiritu Santuak irakatsi bezala predikatzen diet.

Predikua amaitzean, guztiek pentsatzen jarri eta nire aurka oihuka hasten dira: "Ez zaitugu errege nahi"; ez zara hitz ederrekkoa eta sinpleegia zara. Lotsa handia ematen digu, halako nagusi sinple eta mespretxagarria gure gain edukitzeak, beraz, ez ausartu aurrerantzean gure nagusi zarela esaten". Eta honela bota egiten naute irainka.

«Ez dut uste anaia txikia naizenik, baldin eta ez banaiz era berean pozten haiek nagusitzat nahi ez nautela-eta iraintzen eta lotsaz botatzen nautenean, ohoratzen eta beneratzen nautenean bezala, anaiek probetxu bera izanik kasu batean eta bestean. (LegPer 109)

Otoitza

Komunitate bat zera da:

elkarrekin otoitz egiten duten pertsonak ;
baina baita elkarrekin hitz egiten dutenak ere;
elkarrekin barre egin eta elkarri mesede egiten diotenak;
elkarri txantxetan aritu eta seriooki egoten dakitenak,
batzuetan desados daude, baina gaizkinahirik gabe,
batzuetan norbere buruarekin egoten den bezala,
desadostasun bitxi hori erabiliz
ohiko akordioa indartzeko beti.
Elkarrengandik ikasten dute zerbait
eta baita elkarri irakatsi ere.
Kanpoan daudenen falta sentitzen dute.
Pozez hartzen dituzte iristen direnak.
Holako edo halako adierazpenak egiten dituzte,
maitatzen dakitenean bihotz txinpartak
bisaian, mihian, begietan,
mila keinu samurretan adieraziak.
Eta elkarrekin prestatzen dituzte etxeko jakiak
arimek bat egiten duten horretan
non batzuk, azkenean, bat besterik ez diren horretan ".

San Agustin

Gutuneko azken hitzak

Maitasuna bihotzak neurtutako espazioa eta denbora da. (Mar kel Proust, frantziar nobelagilea)

2022ko otsaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Mk 5,21-24.35b-43	7. Mk 6, 53-56	13. Lk 6,17.20-26	19. Mk 9,2-13	25. Mk 10,1-12
2. Lk 2,2k-32	8. Mk 7,1-13	14. Lk 10,1-9	20. Lk 6,27-38	26. Mk 10,13-16
3. Mk 6,7-13	9. Mk 7,14-23	15. Mk 8,14-21	21. Mk 9,14-29	27. Lk 6,39-45
4. Mk 6,14-29	10. Mk 7,24-30	16. Mk 8,22-26	22. Mt 16,13-19	28. Mk 10,17-27
5. Mk 6,30-34	11. Mk 7,31-37	17. Mk 8,27-33	23. Mk 9,38-40	
6. Lk 5,1-11	12. Mk 8,1-10	18. Mk 8,34-9,1	24. Mk 9,41-50	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Otsaileko otoitza hilaren
24ean izango da.